Kontratuen erregistroa 2024ko uztailean

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2024ko uztailean 50.784 pertsona kontratatu dira, iazko uztailean baino 1.337 gehiago (% 2,7ko igoera). Aurreko hilaren aldean 686 pertsona gutxiago dira kontratatutakoak (% 17,4ko beherakada).

• SEXUA

Uztailean 26.045 gizon eta 24.739 emakume kontratatu dira. Aurreko urtearekin alderatuta, kontratazioak gora egin du gizonen eta emakumeen artean, zertxobait gehiago gizonen artean; % 3 (+759 gizon) eta % 2,4 emakumeen artean (+552 emakume). Hil arteko konparaketan gizonen kontratazioak % 2 egin du behera (-544), eta emakumeen kontratazioak, berriz, % 0,6 egin du behera (-142).

• ADINA

Kontratatutako pertsonen batez besteko adina 33,63 urtekoa da, eta txikiagoa da gizonen artean (33,23) emakumeen artean (34,05) baino. Kontratatutako pertsona gazteenak Gipuzkoan izan dira (32,38 urte), eta helduenak, berriz, Bizkaian (33,75).

Laguntza-teknikarien profilekoak dira gazteenak, batez beste 27,64 urte baitituzte. Helduenak zuzendaritza-lanetarako kontratatutakoak dira, 44 urtetik gorako batez bestekoarekin. Lanaldi partzialerako kontratatutako pertsonak lanaldi osorako kontratatutakoak baino gazteagoak dira (32,08 urte eta 34,55 urte, hurrenez hurren); aldea handiagoa da gizonen artean (30,07 lanaldi partzialekoak eta 34,39 lanaldi osokoak. Kontratuaren iraupenaren arabera, kontratu mugagabeak dituzten pertsonen batez besteko adina aldi baterako kontratuak dituztenen batez bestekoa baino handiagoa da (33,92 vs 33,53).

• JATORRIA

2024ko ekainean kontratatutako pertsonen % 18,8k atzerriko nazionalitatea du, iazko uztailean baino puntu 0,8 gehiago. Kontratatutako atzerritar guztietatik, % 55,4k Latinoamerikako herrialderen bateko nazionalitatea dute, % 12,9k Afrika iparraldekoa, % 11,2k Saharaz hegoaldeko Afrikakoa, % 7,4k Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batekoa azkenik, % 6,3k Asiakoa eta ,azkenik, % 5,8k Europako Erkidegoko herrialderen batekoa. Bertakoak (33,16 urte) gazteagoak dira atzerritarrak (35,63 urte) baino. Kontratazio-bolumen jakin bat duten atzerritarren artean, Afrika iparraldetik etorritakoak dira gazteenak 34,38 urterekin, eta Europako Erkidegokoa ez den herrialderen batetik etorritakoak, berriz, helduenak, 37,02 urterekin.

Azken hilabetean, 158 atzerritar gehiago kontratatu dira. Balio absolutuetan, Latinoamerikatik etorritakoen artean igo da gehien kontratatutako pertsona kopurua, 138 pertsona gehiagorekin eta % 2,7ko igoera erlatiboarekin. Balio erlatiboetan, kontratazio maila esanguratsua duten jatorrien artetik, Europako Erkidegotik kanpoko pertsonen kontratazioa igo da gehien, % 8,5eko igoerarekin (+55 pertsona gehiago). Beste muturrean, Europako Erkidegotik etorritako pertsonen artean jaitsi da gehien kontratatutako pertsona kopurua, bai balio absolututan zein erlatibotan, 142 pertsona gutxiago baitira (% 20,4ko murrizketa).

Urteko arteko konparaketan, 654 atzerritar gehiago kontratatu dira (% 7,3ko hazkundea). Kontratazio esanguratsua duten jatorri guztietan egin du gora kontratazioak, Europako Erkide-

gotik etorritakoetan izan ezik, 3 pertsonatan jaitsi baita (-% 0,5). Latinoamerikatik etorritakoen taldea da, bai balio absolutu zein erlatiboetan, gehien hazi dena, 506 pertsona gehiago baitira eta % 10,6ko hazkundea izan baitute.

• PRESTAKUNTZA-MAILA

Kontratatutako pertsonen % 43,6k oinarrizko prestakuntza-maila du, gehienez ere derrigorrezko hezkuntza egin dute, % 25,8k batxilergoko ikasketak ditu, % 15,9k Lanbide Heziketakoak eta % 14,5ek unibertsitatekoak.

Hileko erreferentzian, murriztu egin da ikasketa-profil guztietako pertsonen kontratazioa, derrigorrezkoena izan ezik, ikasketa maila honetako 1.579 pertsona gehiago kontratatu baitira (% 7,7ko hazkundea). Balio absolutuetan zein erlatiboetan gehien jaitsi direnak LHko ikasketak dituzten pertsonak izan dira, 2.023 pertsona gutxiago eta % 20,1eko murrizketarekin.

Urteko erreferentzian, behera egin dute kontratatutako pertsonek LHko profiletan (-74, -%0,9) eta unibertsitarioetan (-91, -%1,2). Aldiz, derrigorrezko ikasketak dituzten pertsonen hazkundea nabarmentzen da, bai balio absolutuetan zein erlatiboetan, 1.274 pertsona gehiagorekin eta % 6,1eko ehuneko-hazkundearekin.

KONTRATUEN KOPURUAK

Uztailean, EAEn 67.690 kontratu sinatu dira, horietatik 14.239 mugagabeak dira (guztietatik % 21). Ehuneko handia da, 2022. urtearen hasieran lan-erreforma onartu eta aplikatu aurreko serie historikoarekin alderatuta, baina 2022ko otsailetik izandako txikiena da. 0,2 puntu jaitsi da ekainarekin alderatuta, eta 0,7 puntu 2023ko uztailarekin alderatuta. Kontratu mugagabea dutenen ehunekoa handiagoa da gizonen artean: % 22,2 eta emakumeen artean % 19,8 da.

Kontratazioak % 2,8 egin du behera joan den hilabetearekin alderatuta (1.933 kontratu gutxiago); jaitsiera aldi baterako kontratuetan (-%2,6, -1.422 kontratu) eta mugagabeetan (-511, - % 3,5) gertatu da. Urteko erreferentzian, % 6,4 igo da 2023ko uztailarekin alderatuta, 4.101 kontratu gehiago sinatu baitira. Hala ere, igoera aldi baterako kontratuetan bakarrik gertatu da (+4.306, +%8,8), kontratazio mugagabea % 1,4 jaitsi baita (-205 kontratu).

• JARDUERA EKONOMIKOA

Joan den hilabetearekin alderatuta, kontratazioan igoera handienak izan dituzten jarduerak honako hauek izan dira: jarduera artistiko eta aisialdia (+664), garraioa (+616) eta administrazioa (+573). Jaitsierarik handienak: informazioa eta komunikazioan (-1.726, -%30,2), hezkuntzan (-1.479, -%38,1) eta manufaktura-industrian (-1.135, -%11,9) gertatu dira.

Iazkoa uztailarekin alderatuta, jarduera gehienetan kontratazioak gora egin du. Gehien hazi diren kontratazioak ostalaritza (+1.972 + % 24), informazioa eta komunikazioa (+1.609, +% 67,5) eta sanitarioak (+893, +% 11,8) izan dira. Jaitsierarik handienak, berriz, administratiboetan (-1.574, % 20,2 gutxiago) eta hezkuntzan (-616, -% 20,4) izan dira.

Kontratuen erregistroa 2024ko uztailean

• OKUPAZIOA

Hil arteko bilakaeran, kontratazioa gehien igo den okupazioa, balio absolutuetan, kualifikatu gabekoen profilean izan da, 1.380 kontratutan egin baitu gora, % 8,9ko hazkundearekin; balio erlatiboetan, berriz, igoera handiena laguntzako teknikarien profilean gertatu da, % 9,1eko hazkundearekin (+750 kontratu). Aldiz, beherakadarik handiena, bai balio absolutu zein erlatiboetan, teknikari eta profesional zientifikoen kontratuetan gertatu da, 3.055 kontratu gutxiago eta % 28,1eko jaitsierarekin.

Aurreko urteko uztailaren aldean, gora egin du kontratazioak okupazio guztietan, enplegatu administrarietan (-699, -%16,9) eta industriako kualifikatuetan (-116, -%3,2) izan ezik. Igoerarik handiena, balio absolutuetan, zerbitzuetako kualifikatuek izan dute, 2.267 kontratu gehiagorekin (+%11,6); balio erlatiboetan, igoera handiena operadoreen kontratazioak izan du, % 14,2ko igoerarekin (+603 kontratu).

• KONTRATAZIO-MOTA

Hilabete honetan, berriz ere, mugagabeen tasa nabarmendu behar da; izan ere, 2022ra arte % 10etik behera egon ohi zen tasa hau, eta kasu honetan % 21era iritsi da. % 20tik gorako tasa horiek ohikoak izaten ari dira 2022ko hasieran aplikatutako lan-erreformaren ondotik. Hala ere, azken hilabeteetan tasa horrek beheranzko joera hartu du.

2024ko uztailean sinatutako kontratuen % 36,3 lanaldi partzialekoak dira (aurreko hilean baino puntu 1 gehiago), % 46,8 emakumeen kasuan eta % 26,3 gizonen kasuan. Kontratazio-mota horren arazo nagusia da gehienak ez direla borondatezkoak, eta agerian uzten dutela ezarritako kontratu-harremanaren kalitatea eskasa dela. Kontratu mugagabeen % 32,7 lanaldi partzialekoak dira.

Lanaldi partzialeko kontratazioaren ehuneko handiena duten jarduera ekonomikoak, kontratazio-balio esanguratsua duten jardueren artean, honako hauek dira: ostalaritza (% 57,6), hezkuntza (% 57,5) eta administrazio-jarduerak (% 52,3). Okupazio-profilen arabera, lanaldi partzialeko kontratazioagatik gehien nabarmentzen dena zerbitzuetako langileena da (% 52,8), eta gutxien, lehen sektoreko langile kualifikatuena (% 4,8).

• LURRALDE HISTORIKOAK

Lurralde historikoen arabera, kontratazioaren % 19 Araban sinatu da, % 49,4 Bizkaian eta gainerako % 31,6 Gipuzkoan.

Hil honetan, Araban 2.323 kontratu gutxiago sinatu dira, eta hil arteko kontratazioak behera egin duen Lurralde Historiko bakarra da (-%15,3); Bizkaian 229 kontratu gehiago egin dira (% 0,7 gehiago) eta Gipuzkoan 161 kontratu gehiago (+%0,8).

Aurreko urtearekin alderatuta, kontratazioak gora egin du hiru lurralde historikoetan. Araban 306 kontratu gehiago sinatu dira (% 2,4ko igoera); Bizkaian % 7,6 igo da (2.348 kontratu gehiago), eta Gipuzkoan igo da gehien (1.447 kontratu gehiago, % 7,3ko hazkundea).

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

Ekainean sinatutako kontratuen % 23,3 aldi baterako laneko enpresen bidez egin dira. ABLEen bidezko kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino; lehenengoen artean, kontratuen % 30,9 enpresa mota horren bidez egin da, eta emakumeen artean, berriz, kontratazioen % 14,5 soilik izan dira ABLE bidez.

Aurreko hilabetearekin alderatuta, ABLE baten bidez egindako kontratazioak % 7,8 egin du behera (1.006 kontratu gutxiago), eta, 2023ko uztailarekin alderatuta, % 17,7 egin du gora (+1.728 kontratu).



Kontratuen erregistroa 2024ko uztailean

		Uzt-2024	Eka-2024	Uzt-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Mota	Mugagabea	14.239	14.750	14.444	-511	-3,46	-205	-1,4
	Aldi baterakoa	53.451	54.873	49.145	-1.422	-2,59	4.306	8,8
	Guztira	67.690	69.623	63.589	-1.933	-2,78	4.101	6,4
	Mugagabeen %	21,0%	21,2%	22,7%	-0,15		-1,68	
Sexua	Gizona	34.460	35.257	32.331	-797	-2,26	2.129	6,6
	Emakumea	33.230	34.366	31.258	-1.136	-3,31	1.972	6,3
	Guztira	67.690	69.623	63.589	-1.933	-2,78	4.101	6,4
	Emakumeen %	49,1%	49,4%	49,2%	-0,27		-0,06	
Mugagabea	Gizona	7.645	8.024	7.853	-379	-4,72	-208	-2,6
	Emakumea	6.594	6.726	6.591	-132	-1,96	3	0,0
	Guztira	14.239	14.750	14.444	-511	-3,46	-205	-1,4
Aldi baterakoa	Gizona	26.815	27.233	24.478	-418	-1,53	2.337	9,5
	Emakumea	26.636	27.640	24.667	-1.004	-3,63	1.969	8,0
	Guztira	53.451	54.873	49.145	-1.422	-2,59	4.306	8,8
Guztira	Gizona	34.460	35.257	32.331	-797	-2,26	2.129	6,6
	Emakumea	33.230	34.366	31.258	-1.136	-3,31	1.972	6,3
	Guztira	67.690	69.623	63.589	-1.933	-2,78	4.101	6,4
Mugagabeen tasa	Gizona	22,2%	22,8%	24,3%	-0,57		-2,10	
	Emakumea	19,8%	19,6%	21,1%	0,27		-1,24	
	Guztira	21,0%	21,2%	22,7%	-0,15		-1,68	
Lanaldi partziala	Mugagabea	4.665	4.472	4.411	193	4,32	254	5,8
	Aldi baterakoa	19.929	20.110	18.287	-181	-0,90	1.642	9,0
	Beste batzuk	43.096	45.041	40.891	-1.945	-4,32	2.205	5,4
	Guztira	67.690	69.623	63.589	-1.933	-2,78	4.101	6,4
	LP tasa	36,3%	35,3%	35,7%	1,03		0,64	
Lanaldi partziala	Gizona	9.057	8.831	8.139	226	2,56	918	11,3
	Emakumea	15.537	15.751	14.559	-214	-1,36	978	6,7
	Guztira	24.594	24.582	22.698	12	0,05	1.896	8,4
	Gizonen tasa	26,3%	25,0%	25,2%	1,24		1,11	
	Emakumeen tasa	46,8%	45,8%	46,6%	0,92		0,18	
	Tasa guztira	36,3%	35,3%	35,7%	1,03		0,64	
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	387	911	205	-524	-57,52	182	88,8
	Beste batzuk	67.303	68.712	63.384	-1.409	-2,05	3.919	6,2
	Guztira	67.690	69.623	63.589	-1.933	-2,78	4.101	6,4
	Prestakuntzakoak (%)	0,6%	1,3%	0,3%	-0,74		0,25	
L. historikoa	Araba	12.887	15.210	12.581	-2.323	-15,27	306	2,4
	Bizkaia	33.431	33.202	31.083	229	0,69	2.348	7,6
	Gipuzkoa	21.372	21.211	19.925	161	0,76	1.447	7,3
	EAE	67.690	69.623	63.589	-1.933	-2,78	4.101	6,4
Gizonak	Lehen sektorea	608	845	465	-237	-28,05	143	30,8
	Erauzketa-industriak	9	9	9	0	0,00	0	0,0
	Manufaktura-industriak	6.393	7.184	6.187	-791	-11,01	206	3,3
	Energia	11	3	5	8	266,67	6	120,0
	Ura	596	389	367	207	53,21	229	62,4
	Eraikuntza	1.646	1.745	1.705	-99	-5,67	-59	-3,5
	Merkataritza	3.685	3.582	3.489	103	2,88	196	5,6
	Garraioa	4.164	3.594	3.457	570	15,86	707	20,5
	Ostalaritza	4.238	4.030	3.507	208	5,16	731	20,8
	Informazioa eta komunikazioa	2.260	3.365	1.450	-1.105	-32,84	810	55,9
	Finantzak eta aseguruak	159	114	122	45	39,47	37	30,3
	Higiezinen sektorea	25	35	28	-10	-28,57	-3	-10,7
	Zientifikoak eta teknikoak	1.020	874	1.025	146	16,70	-5	-0,5
	Administraziokoak	2.730	2.623	3.688	107	4,08	-958	-26,0
	Administrazio publikoa	323	523	548	-200	-38,24	-225	-41,1
	Hezkuntza	770	1.009	777	-239	-23,69	-7	-0,9
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	1.828	1.749	1.634	79	4,52	194	11,9

Kontratuen erregistroa 2024ko uztailean

		Uzt-2024	Eka-2024	Uzt-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Arte- eta jolas-jarduerak	3.413	3.099	3.214	314	10,13	199	6,2
	Beste zerbitzu batzuk	487	419	547	68	16,23	-60	-11,0
	Etxeetako jarduerak	91	63	107	28	44,44	-16	-15,0
	Lurraldez kanpoko erakundeak	4	3	0	1	33,33	4	
	Guztira	34.460	35.257	32.331	-797	-2,26	2.129	6,6
Emakumeak	Lehen sektorea	92	147	56	-55	-37,41	36	64,3
	Erauzketa-industriak	2	2	1	0	0,00	1	100,0
	Manufaktura-industriak	1.988	2.332	2.013	-344	-14,75	-25	-1,2
	Energia	12	9	8	3	33,33	4	50,0
	Ura	55	55	58	0	0,00	-3	-5,2
	Eraikuntza	163	183	138	-20	-10,93	25	18,1
	Merkataritza	4.802	4.687	4.491	115	2,45	311	6,9
	Garraioa	1.019	973	1.092	46	4,73	-73	-6,7
	Ostalaritza	5.944	5.684	4.703	260	4,57	1.241	26,4
	Informazioa eta komunikazioa	1.733	2.354	934	-621	-26,38	799	85,5
	Finantzak eta aseguruak	224	163	165	61	37,42	59	35,8
	Higiezinen sektorea	41	57	43	-16	-28,07	-2	-4,7
	Zientifikoak eta teknikoak	971	886	927	85	9,59	44	4,7
	Administraziokoak	3.483	3.017	4.099	466	15,45	-616	-15,0
	Administrazio publikoa	480	705	387	-225	-31,91	93	24,0
	Hezkuntza	1.632	2.872	2.241	-1.240	-43,18	-609	-27,2
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	6.659	6.791	5.960	-132	-1,94	699	11,7
	Arte- eta jolas-jarduerak	1.962	1.612	1.870	350	21,71	92	4,9
	Beste zerbitzu batzuk	965	796	972	169	21,23	-7	-0,7
	Etxeetako jarduerak	994	1.031	1.097	-37	-3,59	-103	-9,4
	Lurraldez kanpoko erakundeak	9	10	3	-1	-10,00	6	200,0
	Guztira	33.230	34.366	31.258	-1.136	-3,31	1.972	6,3
Guztira	Lehen sektorea	700	992	521	-292	-29,44	179	34,4
	Erauzketa-industriak	11	11	10	0	0,00	1	10,0
	Manufaktura-industriak	8.381	9.516	8.200	-1.135	-11,93	181	2,2
	Energia	23	12	13	11	91,67	10	76,9
	Ura	651	444	425	207	46,62	226	53,2
	Eraikuntza	1.809	1.928	1.843	-119	-6,17	-34	-1,8
	Merkataritza	8.487	8.269	7.980	218	2,64	507	6,4
	Garraioa	5.183	4.567	4.549	616	13,49	634	13,9
	Ostalaritza	10.182	9.714	8.210	468	4,82	1.972	24,0
	Informazioa eta komunikazioa	3.993	5.719	2.384	-1.726	-30,18	1.609	67,5
	Finantzak eta aseguruak	383	277	287	106	38,27	96	33,4
	Higiezinen sektorea	66	92	71	-26	-28,26	-5	-7,0
	Zientifikoak eta teknikoak	1.991	1.760	1.952	231	13,13	39	2,0
	Administraziokoak	6.213	5.640	7.787	573	10,16	-1.574	-20,2
	Administrazio publikoa	803	1.228	935	-425	-34,61	-132	-14,1
	Hezkuntza	2.402	3.881	3.018	-1.479	-38,11	-616	-20,4
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	8.487	8.540	7.594	-53	-0,62	893	11,8
	Arte- eta jolas-jarduerak	5.375	4.711	5.084	664	14,09	291	5,7
	Beste zerbitzu batzuk	1.452	1.215	1.519	237	19,51	-67	-4,4
	Etxeetako jarduerak	1.085	1.094	1.204	-9	-0,82	-119	-9,9
	Lurraldez kanpoko erakundeak	13	13	3	0	0,00	10	333,3
	Guztira	67.690	69.623	63.589	-1.933	-2,78	4.101	6,4
Gizonak	<>	0	3	0	-3	-100,00	0	
	Zuzendaritza	98	81	95	17	20,99	3	3,2
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	3.570	4.789	2.864	-1.219	-25,45	706	24,7
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	4.901	4.710	4.755	191	4,06	146	3,1
	Administrazioko langileak	1.374	1.512	1.694	-138	-9,13	-320	-18,9
	Zerbitzuetako kualifikatuak	7.791	7.487	7.037	304	4,06	754	10,7

Kontratuen erregistroa 2024ko uztailean

		Uzt-2024	Eka-2024	Uzt-2023	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
					Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
	Oinarrizko kualifikatuak	172	201	170	-29	-14,43	2	1,2
	Industriako kualifikatuak	3.169	3.696	3.245	-527	-14,26	-76	-2,3
	Operadoreak	4.173	4.087	3.648	86	2,10	525	14,4
	Kualifikatu gabeak	9.212	8.691	8.823	521	5,99	389	4,4
	Guztira	34.460	35.257	32.331	-797	-2,26	2.129	6,6
Emakumeak	<>	0	0	0	0,00		0,00	
	Zuzendaritza	74	44	63	30	68,18	11	17,5
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	4.254	6.090	4.094	-1.836	-30,15	160	3,9
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	4.052	3.493	3.752	559	16,00	300	8,0
	Administrazioko langileak	2.062	2.410	2.441	-348	-14,44	-379	-15,5
	Zerbitzuetako kualifikatuak	14.010	14.272	12.497	-262	-1,84	1.513	12,1
	Oinarrizko kualifikatuak	15	11	15	4	36,36	0	0,0
	Industriako kualifikatuak	333	416	373	-83	-19,95	-40	-10,7
	Operadoreak	678	737	600	-59	-8,01	78	13,0
	Kualifikatu gabeak	7.752	6.893	7.423	859	12,46	329	4,4
	Guztira	33.230	34.366	31.258	-1.136	-3,31	1.972	6,3
Guztira	<>	0	3	0	-3	-100,00	0	
	Zuzendaritza	172	125	158	47	37,60	14	8,9
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	7.824	10.879	6.958	-3.055	-28,08	866	12,4
	Teknikariak eta laguntza ema-teko profesionalak	8.953	8.203	8.507	750	9,14	446	5,2
	Administrazioko langileak	3.436	3.922	4.135	-486	-12,39	-699	-16,9
	Zerbitzuetako kualifikatuak	21.801	21.759	19.534	42	0,19	2.267	11,6
	Oinarrizko kualifikatuak	187	212	185	-25	-11,79	2	1,1
	Industriako kualifikatuak	3.502	4.112	3.618	-610	-14,83	-116	-3,2
	Operadoreak	4.851	4.824	4.248	27	0,56	603	14,2
	Kualifikatu gabeak	16.964	15.584	16.246	1.380	8,86	718	4,4
	Guztira	67.690	69.623	63.589	-1.933	-2,78	4.101	6,4
ABLE	Gizonak	8.055	8.307	6.879	-252	-3,03	1.176	17,1
	Emakumeak	3.785	4.539	3.233	-754	-16,61	552	17,1
	Guztira	11.840	12.846	10.112	-1.006	-7,83	1.728	17,1
Pertsona-kopurua	Gizonak	26.045	26.589	25.286	-544	-2,05	759	3,0
	Emakumeak	24.739	24.881	24.161	-142	-0,57	578	2,4
	Guztira	50.784	51.470	49.447	-686	-1,33	1.337	2,7
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	22.157	20.578	20.883	1.579	7,67	1.274	6,1
	Batxilergoa	13.095	13.236	12.769	-141	-1,07	326	2,6
	LHko ikasketak	8.058	10.081	8.132	-2.023	-20,07	-74	-0,9
	Unibertsitate-ikasketak	7.340	7.411	7.431	-71	-0,96	-91	-1,2
	Atzerritarra	9.557	9.399	8.903	158	1,68	654	7,3
	Bertakoa	41.227	42.071	40.544	-844	-2,01	683	1,7
	<>	26	25	31	1	4,00	-5	-16,1
	Aberrigabea	60	71	44	-11	-15,49	16	36,4
	Europako Erkidegoa	554	696	557	-142	-20,40	-3	-0,5
	Erkidegokoa ez den Europa	706	651	650	55	8,45	56	8,6
	Txina	110	109	116	1	0,92	-6	-5,2
	Japonia	12	6	7	6	100,00	5	71,4
	Asiako beste herrialde bat	477	483	466	-6	-1,24	11	2,4
	Saharaz hegoaldeko Afrika	1.071	1.018	1.068	53	5,21	3	0,3
	Afrikako iparraldea	1.229	1.165	1.165	64	5,49	64	5,5
	Ipar Amerika	16	21	9	-5	-23,81	7	77,8
	Erdialdeko eta Hego Amerika	5.292	5.154	4.786	138	2,68	506	10,6
	Ozeania	4	0	4	4		0	0,0
	Atzerritarrak guztira	9.557	9.399	8.903	158	1,68	654	7,3